

A close-up portrait of a woman's face, looking directly at the camera. The lighting is dramatic, with the left side of her face (viewer's right) in deep shadow and the right side (viewer's left) brightly lit. Her eyes are dark and intense, and her expression is neutral. The background is dark and out of focus.

OBRA HIDRAULIKOETAKO ETA  
HIRIGINTZAKO DEPARTAMENTUA

#### JARDUERA NAGUSIAK

##### Saneamendua

Oriak Garaiko saneamendua  
Deba Erdialdeko esku-hartzeak

##### Hornidura

Ibiurko urtegiko hornidura sarea  
Presa txikiak kentzeko plana

##### Kartografia digitala

Aurreko urteetan bezala, Obra Hidraulikoetako eta Hirigintzako Departamentuaren 2002. urteko jarduketan helburu nagusia, Obra Hidraulikoen arloan, lurraldeko ur hornidura eta saneamenduko oinarrizko azpiegitura egiteko obrak jarraitzea izan da.

#### SANEAMENDUA

Gipuzkoako ibaien saneamenduari dagokionez, departamentuak 2002. urtean egindako jarduketan helburu nagusia Ori ibaiaren goialdea berreskuratzea izan da eta, hortaz, Beasain eta Ordiziako interseptoreak egiteko lanak amaitzen ari dira dagoeneko. Itsasondoko eta Ihurre-Idiazabalgoa interseptoreak, Idiazabal eta Segurako isurketak jasotzen dituztenak, lehendik amaituta daude. Legorretako Hondakin Uren Araztegiaren (HUA) eraikuntza oso aurreratua dago eta 2003ko udaberrian abiaraztea aurreikusten da. Sistema horretan egin diren obren aurrekontua ia 27 milioi eurora iristen da.

Halaber, Ori ibaiaren arroan Andoaingo 20-21 alor bateratuaren saneamendu lanak amaitu dira. Lan horiek gune horren hiritartze berriarekin koordinatuta egon dira eta 410 mila euroko aurrekontua eduki dute.

Deba ibaiaren arroan Eibar eta Elgoibarko hondakin urak tratatuko dituen Elgoibarko Apraitzeko araztegia kokatzeko plataforma eraikitzen hasiak dira. Obra horren aurrekontua 1,5 milioi euroko baino gehiagokoa da.

#### HORNIDURA

Hornidurari dagokionez, Tolosaldera ura eramateko dauden arazoei konponbidea aurkitzea izan da jarduketa horien helburu garrantzitsuena. Horrela, 57.000 biztanle baino gehiagoko area horrek goi hornidura sistema izango du eta, ondorioz, ur hornidura nabarmenki hobetuko da. Departamentuak obrak esleitu zituen 2001. urteko azken aldean eta 2002. urtean zehar erritmo onean jarraitu du sare horren eraikuntzak. Hala ere, estatuko administrazioak Ibiurko urtegia eraikitzeko baimena eman zain dago une hauetan, izan ere azpiegitura hori beharrezkoa eta funtsezkoa baita aipatu sistema martxan jartzeko.

Zehazki, eroanbideari dagozkion bigarren, hirugarren eta laugarren faseak gauzatzen ari dira, 11 milioi euro baino gehiagoko inbertsio batekin. Tolosaldea hornitzeko bigarren faseak Ibiurko banaketaren adar nagusia hartzen du, Tolosatik Irurara doazen bi adarrekin, bata Anoetako depositura iristen dena eta bestea Irurako depositura doana. Hirugarren faseak, berriz, Iruratik Zizurkilera doan eroanbide nagusia, Villabonako depositu berria eta Zizurkilgo depositura iristen den adarra hartzen ditu. Azkenik, laugarren faseak Zizurkildik Andoainerainoko adar nagusia hartzen du.

2002. urtean *presa txikiak kentzeko planari* ekin zitzaion, arrain espeziertzako oztopo artifizialak deuseztatzeko helburuarekin, Urola ibaiko Iraeta, Amilibia eta Txiribogako presa txikietan jardunez. Plan horri esker, izokina bezalako arrain espezieak ibaian gora igo ahal izango dute, beren ohiko lekuetan erruteko. Ondare historikoaren parte izateagatik mantentzen diren presetan, arrainak ibaian gora igotzeko eskalak eginez gauzatzen ari da plana.

#### BESTE JARDUERA BATZUK

\_ Urola ibaiaren arroan, Brinkolako eta Telleriarteko hondakin urak bilduko dituen kolektorea eraiki du departamentuak eta, horrela, Urola ibaiaren goialdea garbituko da. Ibai hori da Gipuzkoan, arazketari dagokionez, garbiena eta aurreratuen. Obren kostua 2,2 milioi eurora iritsi da.

\_ Txingudiko eskualdean Jaizubia errekarren kolektorearen 1. aldaketa. 2. fasea proiektuaren obra gauzatzen ari da, 3,6 milioi euro baino gehiagoko aurrekontuarekin.

\_ Uholdeen aurkako prebentzio lanetarako Departamentuak dituen planei jarraituz, laguntza eman da Eusko Jaurlaritzak zenbait udalerritan, besteak beste, Itsasondo, Zegama, Azkoitia, Elgoibar, Ataun eta Arrasaten, egiten ari den obrak finantzatzeko.

\_ Departamentuak, Abaltzisketa eta Orendain urez hornitzeko obrak bukatu ditu dagoeneko. Hemendik aurrera bi udalerrri horiek Arriarango sistematik hartuko dute ura. Egindako obren inbertsioa ia milioi bat euro ingurukoa izan da. Udalerrri horiei dagokien teleagintzearen sistema ere jarri da aurten 43 mila euroko aurrekontuarekin.

#### Geotekniako eta baliabide hidraulikoetako, eta uraren kalitate eta kontroleko unitateak

\_ Azkeneko urtean zehar azaleko nahiz lurrazpiko urraren eta baliabide hidraulikoen kalitatea kontrolatzeko lanekin jarraitu da.

\_ Arroen berreskuratze progresiboa lortzen ari dela antze-man ahal izan da, saneamendu jardueri esker hain zuzen, bereziki ekialdeko arroetan (Bidasoa, Oiartzun, Urumea eta Oria). Era berean, kostaren ingurumen kalitateari buruzko azterlanak egin dira saneamendu obrak egiten ari diren guneetan. Horien artean, Donostiako saneamenduak eta urpeko isurbideak ukitutako kostaldeko guneetan ingurumen kontrola egiteko Aldundiak eta Añarbeko Uren Mankomunitateak sinatu duten hitzarmena azpimarratu behar da. Halaber, industria isurketen datu basea eguneratu da eta I+G proiektuetan parte hartzen ari da Departamentua, saneamendu eta hondakin uren arazketa sistemak optimizatze asmoz.

#### KARTOGRAFIA DIGITALA

Gipuzkoan kokatzeko edo nontzeko baliabideak beti eguneratuta egon daitezen, azpiegitura publikoa handitzeko eta optimizatze lanari jarraipena eman dio Lurralde Informazioko Zerbitzuak. Horretarako, honako zerbitzu hauek jarri dira urtean zehar:

\_ Gipuzkoako lurralde osoan planimetria oinarria eguneratzea.

\_ Gipuzkoako lurralde historikoko eraikinen direktorioa (eraikindegia) guztiz berrikustea, Eustatekin lankidetzan.

\_ 1:5000 ortofotoak informazio sistemara sartzea, Gipuzkoako lurralde historiko osoa hartuz.

\_ Gipuzkoan GPS xehetasunezko erabileran transformazioak kalkulatzeko parametroak zehaztea.

\_ IZFE S.A. elkartearen lankidetzarekin, zerbitzari berri bat jarri da, zerbitzu eta segurtasun prestazioak hobetuz eta eguneroko bisitarien batez besteko kopuruan hazkundera lortuz. Une honetan, batez beste egunean ia 25.000 bisitari ditu orriak.

#### LURRALDE ANTOLAKETA

2002. urtean zehar, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu Sailarekin batera, Lurralde Antolaketaren Artezpi-deek zehaztutako Gipuzkoako sei Jardute Eremuetako Lurralde Zatiko Planak deiturikoak egiten jarraitu du Departamentuak. Horien artean, honoko jardute eremuetako "hasierako onespenerako" dokumentuak osatu eta entregatu dira: Arrasate-Bergara (Debagoiena), Eibar (Debabarrena), Beasain-Zumarraga (Goierri) eta Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta). Donostiako Aurrerapena (Donostialdea) eta Tolosako Jardute Eremuari (Tolosaldea) dagokien seigarren Plana egitea kontratatu dira orobat.

Era berean, Beasain-Zumarraga Jardute Eremuari (Goierri) dagokionez, 2002ko martxoan, *BEASAIN-ORDIZIA-LAZKAO Erpinaren Antolaketaren Analisi eta Proposamenerako Azterketa Osagarria* amaitu zen.

#### HIRIGINTZA

2002an *Aizarnazabal, Orendain, Eskoriatza, Abaltzisketa, Zestoa (Osinbeltz harrobiko etenaldia altxatuz) eta Azpeitiko (Azkune) Hiri Antolamenduko Arauak* onartu ditu Departamentuak, eta planeamendu orokorreko 82 aldaketa onartu ditu. Aldaketa horietatik bi Donostiako Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorrari dagozkio eta beste bat Irungo Hirigintza Antolamenduko Plan Orokorrari.

Era berean, plangintza garatzeko 24 dokumentu izapidetu ditu: 13 Alorreko Plan, 11 Plan Berezi –horietako bat Pasai Donibane eta Pasai San Pedroko Hiriguneeen Birgaitze Orokorrekoa– eta 17 garapen plangintzako aldaketa –horietatik hiru Birgaitzeko Plan Berezienak dira: Azkoitia (2) eta Arrasate–. Halaber, Diputatuen Kontseiluak hartutako bederatzi erabakiren aurkako 18 berraztertze errekurtsio ebatzi ziren iaz, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak emandako lau epai gauzatu ziren.

### Ekonomia Jardueretarako Lur Eremua. Ondare Publikoa

\_ Apatta-erreak. Eskualde eremuko Apatta-errekako industrialdea eta Lurralde Arloko Plana aurrera eraman ahal izateko *Tolosa, Ibarra eta Leaburuko Hiri Antolaketako Arau Subsidiarioen Aldaketak* behin betiko onartu ondoren, 2002. urtean Hiritartze Proiektua onartu, ingurumen eragina deklaratu ondoren, eta jarduketa sistema aldatu da.

\_ Oñartxo. Azkoitia. *Oñartxoko Poligonoan betelana egiteko proiektu aldatuari* eta Zabortegiaren Berreskuratzeari dagozkien obrak, Poligono Industrialia finkatu aurretiko lan bezala, bakoitzaren hitzarmenetan jasotzen diren baldintzen arabera finantzatu dira (598.000 euro).

\_ Orbegozo. Hernani. Orbegozo SU 24.1 Alorraren hiritartzea amaitu da, eraikitzen ari den zubia salbu, eta Konpentsazio Batzordeari 441 mila euro baino gehiago ordaindu zaizkio. Horietatik 334,3 mila euro, hasiera batean, Batzordeari 2000. urteko aurrekontuan esleitutako zenbatekoak eta obren zuzendaritzagatik soldatek, 8 mila euroko gehieneko zenbatekoaz, osatzen dute.

\_ Sansinenea-erreak. Zestoa. Proiektu honetan, Departamentuak urtean zehar 1.298 euroko zenbatekoa ordaindu du, hiritartze gastu bezala.

### ARKITEKTURA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren ondareko eraikinen artapena eta zaintza: 600.000 euroko aurrekontuarekin 2001-2002 denboraldian ondoko eraikin hauetan egin ditu lanak zerbitzu honek:

\_ Foru Aldundiaren jauregian eta horri erantsitako Peñafloridako eraikinean. Foru Aldundiko Moldiztegian, aterpetxeetan edo egoitzetan -Zarauzko Monte Albertia, Hondarribiko Juan Sebastian Elkano eta Segurako Aingeru Goardakoan-, Craj-Gazteria bulegoetan eta Kirol Etxean, Donostiako Ategorrietako eta Peña y Goñi 5.eko etxebizitzetan eta Loiolako Saindutegian, Azpeitian.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren ondareko ondasun higiezinaren hobekuntzarako inbertsioen proiektu eta obrak:

\_ Foru Aldundiaren jauregian Transformazio Gune berri bat egiteko proiektu eta obra lehiaketa. Foru Aldundiaren Jauregiko 3. solairuan, Antia kaleko aldean (Errepide Proiektuen Zerbitzua), klimatizazio instalazioa jartzeko obrak.

\_ Foru Aldundiaren jauregiko 1. solairuan, Antia kaleko aldean (Lurralde Informaziorako Zerbitzua), klimatizazio instalazioa jartzeko proiektua.

\_ Foru Aldundiaren Jauregian ohorezko solairuan elbarrientzako igogailu berri bat eta makina gela berri bat jartzeko obrak.

\_ Foru Aldundiaren jauregiko beheko solairuan eta Ertzaintzaren lokalak izan zirenetan Kontrol eremu berriaren birmoldaketa obrak.

\_ Foru Aldundiko jauregiaren ohorezko solairuko eremu nobleak zaharberritzeko lehiaketa (harriaren garbiketa, pinturak zaharberritzea eta argiztapena berritzea).

\_ Donostiako Mirakruz kaleko 32.ean dagoen etxeko beheko solairuko lokala Unicefeko bulegoetarako egokitzeko obrak.

\_ Lezoko Apaizartza baserrirako exekuzio azterlana.

\_ Kultura Departamentuak Artelekun egindako eraberritze proiektu eta obra osagarriak.

Beste departamentuei emandako laguntza:

Departamentuak Foru Aldundiko gainontzeko departamentuei aholkularitza eta zerbitzuak eskaintzen dizkie, bai proiektuk idazterakoan eta baita obrak gauzatzekoan ere.

Udalei eta beste erakundeei laguntza teknikoa gai zehatzetan:

\_ Eibarko Udaletxea eraberritzea.

\_ Oñatin, Arantzazuko Saindutegiaren inguruaren eraberritzea.

### BESTE JARDUERA BATZUK

Departamentuak parte hartu du arkitekturarekin zerikusia duten kultura eta informazio ekimenetan, besteak beste *Industri Arkitekturaren gaineko Mintegian*. Halaber, *Arkitektura Zerbitzuak Euskal Arteari buruzko IV. Jardunaldiak: Arte Neoklasikoaren eta Erromantikoaren berrikuspena* bezalako jardunaldi eta kongresuetan parte hartu du. Arte Neoklasikoaren eta Erromantikoaren berrikuspenari buruzko

jardunaldi horiek Eusko Ikaskuntzak antolatu zituen, eta bertan, Beasaingo Loinazko San Martin basilikari buruzko komunikazio bat aurkeztu zuen.

Azkenik, Gipuzkoako Arkitekturaren 1850-1960 bitarteko informazio fondoa prestatzen ari da Departamentua, aurrerago gida bat argitaratzeko.